

“INGURUNE BIOSANITARIOKO EKINTZAILEENTZAT ESPEZIALIZATUTAKO PRESTAKUNTZA PROGRAMA”

- Bic Gipuzkoa Berrilanez abian jarri du “Ingurune biosanitarioko ekintzaileentzat espezializatutako prestakuntza programaren” lehen ekitaldia.
- Azaroan eta abenduan egingo da eta teknologiaren harrerako, produktuen zehaztapeneko, erregulazioko eta industria-jabetzako adituek hartuko dute parte; halaber, ingurune biosanitarioko euskal enpresen kasu praktikoak aztertuko dira.

Donostia, 2015ko, azaroaren 11n

Bic Gipuzkoa Berrilanez antolatzen du “Ingurune biosanitarioko ekintzaileentzat espezializatutako prestakuntza programaren” lehen ekitaldia.

Gaur goizean ospatu den lehen saioan eta irekiera-ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko diputatu, Ainhoa Aizpuruk hartu du parte.

Gipuzkoako Foru Aldundiak legegintzaldi honetarako finkatutako helburu estratikoaren artean dago lurraldearen ekonomia sustatzea, eta, testuinguru horretan, ekintzaileentzat sustatzea da Ekonomia Sustapeneko Departamentuaren lan-ildo lehenetsietako bat. Izan ere, biozientzien arloa egon daiteke Gipuzkoan enpresa-proiektu berriak sustatzeko arlo interesagarriaren artean, eta Aldundia errealitate horri laguntzeko prest dago.

Prestakuntza-programa hau Gipuzkoak, azken urte hauetan, biozientzia eta teknologia mediko sanitarioen alde egindako apustu irmoan biltzen da, baita ekintzaileentzat-ingurunean ere. Postu hori berrindatu egin zen bioteknologia, bioingeniaritza eta osasunaren arloko inkubazio aurreratuko espazio baten sorrerarekin, esparru horretan oinarri teknologikoko enpresa berriak sor daitezela sustatuta.

Haien proiektuak garatzen dituzten ekintzaileek, edo erakunde akademikoek, zentro teknologikoen, ikerketa-zentroyen edo jada sortu diren enpresen ondoriozko ikerketetan oinarritutako proiektuak garatzen dituzten ekintzaileek, askotan, oinarri zientifiko eta teknologiko handia dute, baina osasun-merkatuaren beharrekiko lotura ez da beti ondo bideratua egoten lehen garapen faseetan.

Lana merkatutik urrun egin dutenek, hala nola ekintzaile teknologo hauek, ez dute erraz hautematen osasunaren arlora zuzentzen den produktu edo zerbitzu baten zehaztapena; ez dituzte osasun-industriaren prozesuak ezagutzen, edo jardun kliniko intentsiboaz kanpo izan dira.

Hori dela eta, behar-beharrezkotzat jo da ekintzaileei zuzendutako prestakuntza-prozesu bat abian jartzea. Prestakuntza-prozesu horretan, oinarri teknologikoko enpresa berriak abiarazteari buruzko oinarritzko prestakuntza eskaintzeaz harantzago, osasunaren sektorearen errealitatean oinarritu beharko da, estali gabeko osasun-beharrak ebatzi nahi dituzten enpresen berezitasunak eta erronkak ulertzen laguntzeko –erregulazio-onarpenak, saiakuntza klinikoak, barreiadura ingurune zientifikoetan eta beste asko–.

Horrenbestez, prestakuntza-programa teorikoa eta praktikoa diseinatu da, azaroan eta abenduan garatuko dena; lehen ekitaldi honetako 20 ikasle parte-hartzaileek haien proiektuak edo negozio-ideiak garatuko dituzte gai baten inguruko sei saiotan (teknologiaren harrera, produktuaren zehaztapena, jabetza intelektualaren babesa, produktuaren garapena erregulazio-esparru batean, osasun-produktuen marketina, enpresa biosanitarioen kapital-irteera eta finantziazioa); eta inbertitzaileen foro batekin emango saio amaiera.

Saioak lehen mailako adituek gidatuko dituzte, hala nola Miguel Mulet-ek, Fermín Goytisolak, Marisol Quinterok, Xavier Luriak, Javier García, Juan Sebastián Ruizek eta Julia Salaverriak. Prestakuntza-programan, halaber, merkatu biosanitarioan lehiatzeko erronka horiek guztiak gainditu behar izan dituzten euskal enpresen kasu praktikoak ere aztertuko dira (Grupo Egile, Histocell, Progenika edo Kiro Robotics).